




BALOREZKO PROPOSAMENA

Gu lune, Getary eta Eneritz gara eta gure enpresa **GENIUS LENS** da. Guk proposatzen dugun produktua parrandan ateratzeko edolontzi bat da. Gure edalontzien berezitasuna honakoa da: Droga ezberdinen aurrean kolore desberdin bat hartzeko ahalmena izango du, edalontzira droga botatzerakoan edango duena ohartarazi ahal izateko. Berrikuntza honekin drogen sustapena ekidituko litzateke festa giroan eta ekitaldietan, biktima izan daitezkeen pertsoneri babestuz eta horrelako ekitaldietan segurtasuna bermatuz.



Gure produktua erosiko balute bezeroak ez lirakete haien segurtasunaz arduratu beharko; droga detektatzen duen orduko zorigaitz bati aurre egiten ari baigara. Ondorioz edariengandik drogatuta bukatzen duten pertsonak gutxiago izango lirakete, festetan segurtasuna berriro bermatuko genuelako. Eta honetarako honako balioak izango lituzke:

Nobedadea, sortu gabeko produktu bat delako eta produktua asmatu eta salduko bagenu, jendeak parrandan lasaiago ateratzeko aukera izango luke.



Edalontziak **pertsonalizatzeko** aukera ere emango genuke, diseinu ohikoa izateko aukera emango dugu, berezko edalontzien diseinua egokia delako produktu honetarako, eta horrela besteen artean nabarmenduko ez zelako, bezeroak horrela nahi badu.

Hala ere, ekitaldiaren arabera, eredu desberdinak eskainiko genituzke, eta gainera bakoitzak nahi duen irudia edo hitzak jarri ahal izango litzioke edalontziari, gustokoagoa izateko, edo jardunaldi berezi baterako diseinatzeko.



Beste aldetik, festetan **drogatzen dieten pertsonen tasa nabarmen jaitsiko** litzake. Adibidez, lau emakumeetatik hiruk pairatu dituzte haien bizitzan zehar horrelako egoera latzak. Edalontziak tasa hau nabarmen jaitsiko lukeela uste dugu zorigaitz hauek errotik moztuaz.

Prezioari dagokionez, kostua ez da altua izango denon eskuragarri egoteko. Egia da 1€ bateko edalontziak baina garestiagoak izango direla, baina kontuan hartu behar da, erabilgarritasun handiagoa izango dutela, egoera batean baino gehiago erabili daitezkeelako, eta edalontzia berrerabilgarria da.

Azken urteetan asko zabaldu den segurtasun arazo bat denez, eta batzuetan gustura ibiltzeko askatasun falta eta beldurra sentitzen denez, gizarte osoaren eskura jarriko genuke produktu hau, eskuragarri eginez, eta publiko osoari zabalduz.